



areago
ISTORIOAK
BELARRIETARA
KONTAKIZUNAK 4



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola Foru Diputatua
DENIS ITXASO
Kulturako Zuzendari Nagusia
MARÍA JOSÉ TELLERÍA

Argitalpena

© IGARTUBEITI BASERRI MUSEOAREN PROIEKTUA
KUTXA EKOLOGUNEAREN LANKIDETZAREKIN.
2019

Zuzendaritza

K6 GESTIÓN CULTURAL

Testuak

AINARA ELIZONDO, MAIALEN AKIZU, JOSUNE GARCIA DE BIKUÑA,
MIREN JUARISTI, JOXE ALDASORO, MIKEL AIERTZA

Ilustrazioak

AITZIBER ALONSO, AINARA AZPIAZU, ELISABETH PEREZ
Ilustrazioak txuri beltzean RAQUEL SÁNCHEZ GASCÓN

Diseinua

K6 GESTIÓN CULTURAL
RAQUEL SÁNCHEZ GASCÓN

Maketazioa


RAQUEL SÁNCHEZ GASCÓN


Moldiztegia eta Koadernaketa

ARTES GRÁFICAS LOREA S.L.

Ale kopurua

300
I.S.B.N. 978-84-09-16223-9
L.G. SS-01261-2019





AURKIBIDEA

Azenario bete misterio	11
Makusi	18
Marrubien zaporea	26
Larunbatak	34
Desagertuta	44
Mendizuloko sekretua	52

Argitalpen honek Igartubeiti Baserri Museoak eta Kutxa Ekoguneak sustatutako Areago. Istorioak belarrietara euskarazko kontakizunen laugarren deialdira aurkeztutako kontakizun batzuk biltzen ditu.

Areago ondare berrikuntza proiektua da, lenguai ezberdinen arteko erlazioaren bitartez, ondare eremuaren eta eremu artistikoaren arteko beste harreman mota batzuk aztertzen dituena.

Oraingo honetan Areagok, kontakizunen laburren bitartez, parte hartzea, sorkuntza prozesuak eta Igartubeitiren inguruko narratiba berriak nabarmendu nahi ditu.

Aurkeztutako kontakizunak lantzen duten gaia baserria eta paisaia da. Baserria bere inguruko paisaiaren zati da, are gehiago, ingurune hori horrela izatearen eragile ere bada. Izenak berak ere halaxe dio: “ baserria = basoko herria”. Baserriak, eta mende luzez bertan egin den bizimoduak lotura zuzena izan dute bere inguruko paisaiarekin.

Argitalpen hau letren eta ilustrazio munduen arteko sorkuntza elkarrizketa bat da ere, gonbidatutako hiru ilustratzaileak kontakizun ezberdinen berrinterpretazio ariketa bat burutuz.

AZENARIO

bete **MISTERIO**

Ainara Elizondo

Saritutako kontakizunak:

1. saria: *Azenario bete misterio*, **Ainara Elizondo**.
2. saria: *Makusi*, **Maialen Akizu**.
3. saria: *Marrubien zaporea*, **Josune Garcia de Bikuña**.

Kontakizunen interpretazio libre batetik abiatuz, **Aitziber Alonsok**, **Ainara Azpiazuk** eta **Elisabeth Perezek** ilustrazioak sortu dituzte.

Ekainari zazpi egun ostu zizkion egutegiak eta, hala ere, Ekiñek muturtuta jarraitzen zuen oraindik gurasoekin. Astebete zeraman pipertuta eta munduarekin haserre, bere kasketa amaigabe hartan tematuta, gurasoei hitzik zuzentzeko inolako intentziorik gabe. Aita-amek, beharbada, bazuten erruaren zati pixka bat, agian kulparen hiru laurden edo... Erdia baino gehixeago, behintzat, seguru. Gogorra behar zuen neskato batentzat hiria utzi, lagunez ahaztu eta baserri mundura egokitzea. Hori ez zen modakoa, duda-mudakoa baizik. Dena den, ez zen gurasoena errua bete-betean, baina Ekiñeren buru gogorrean ez zen halakorik sartzen.

-Bozkatzeko aukerarik ere ez didazue eman!-egin zuen purrust kotxean sartu eta gurasoei hitza ukatu baino zazpi egun lehenago. Lore ere bere ondoan zihoan kotxean, baina isilik. Izan ere, oraindik ez zuen hizketan ikasi eta ez zen hitzik kanporatzeko gai. Ahoa zabaldu eta jaten bakarrik ikasi zuen ordura arte. Jaten eta bizpahiru pauso ematen, mozkorrek bezala balantzaka.



Egilea:
Aitziber Alonso

Ekainaren zazpia zen eta Ekiñerentzat barkaezina zen etxebizitzaz aldatu izana. Gorroto zituen gurasoak eta baserri handi hura. Ez zuen baserrikerik behar. Ez zituen ikusi ere egin nahi aitak erosi berriak zituen untzikumeak eta are gutxiago automobila bezala ikuiluan aparkatuta zegoen behi txuri-beltza. Ez zuen baratzerik nahi, ezta oiloek errundako arrautz freskorik ere. Bakarrik egon nahi zuen bere gelan, Loreri bere atsekabea kontatu eta estu besarkatu, hori besterik ez. Gurasoak serio jarri eta zeregina eman zioten arte.

-Bihartik aurrerako zure lehen lana, andereño, baratzerako txorimaloa egitea izango da -agindu zion amak, Ekiñek kopeta zimurtzen zion bitartean.

Amak berriz ere hitz magikoa erabili zuen: baratza. Baratza gora eta baratza behera. Gosaltzeko baratza eta afaltzeko ere baratza. Munduan lur mutur hura baino altxor handiagorik ez balego bezala gurasoentzat. Eguneroko legatza bezain garratza zen baratza. Purrustak purrusta, txorimaloarena ez zen, ordea, hain burutazio kaxkarra. Ekiñek biziki atsegin zituen eskulanak eta gustura aritzen zen ikastolan ostiralero buztinarekin saltsan, hariarekin eskumuturrekoak egiten eta txorimaloarena agian uste baino dibertigarriagoa izan zitekeen... edo uste baino zirraragarriagoa eta misteriotsuagoa!

Amona Juanitaren lastozko txapelaz eta bizpahiru arroparekin, sekulako txorimaloa egin zuen pare bat egunetan Ekiñek. Aitak

lagunduta, dena delakoa kanabera bati lotu eta baratzaren erdian iltzatu zuten tente-tente zeremonia handiz. Gainera, ekitaldiari handitasuna emateko, Ekiñek sekulako hitzaldia eman zuen baratzaren erdian gurasoak bertan zirela eta txorimaloari zuzenduz, "baratzeko zaindari izendatzen zaitut" bota zuen, gurasoek barreari ozta-ozta eutsi ezinik. Baratza, jada, ez zen hain garratza, edo ez zirudien hasieran bezain aspergarri, behintzat. Txorimaloaren aitzakiarekin, telebista bigarren mailara pasa zen eta kanpoko lanak ugaritzen hasi zitzaizkion neskatoari nahi gabe.

Lur eremu karratu hura handiegia ez bazen ere, supermerkatuan bezala, denetik zegoen bertan: tipulak, baratzxuriak, urazak, tomateak, porruak eta baratza guztietan nagusitzen ziren protagonistak: barrabas belarrak.

Guztien zaindari bihurtu zen Ekiñe eta, nola ez, xixare txikien eta barraskilo lotsagabeen etsai. Hain gustuko zituen marrubi guztiak jaten zizkioten zomorroek eta horregatik, euren atzetik ibiltzen zen beti zelatan, uzta kosta ala kosta babestu nahian. Belar txarrak kentzea zen lanik nekezena, eguzki galdatan bereziki, baina egin behar bazen, horretarako ere ez zuen herdoilik izaten belaunetan. Txapelaz lepo gaineko

ganbara estali eta besoak eguzki-kremaz igurtzita, beldurrik gabe ekiten zion makurtzeko lanari eta amak, ordainetan, laranja zuku freskoaz itxaroten zion sukaldean.

Arratsalde batean, ia oharkabean, azenarioak desagertzen hasi ziren arte.

Amona Juanitak, Ekiñek urteak bete zituen egunean bertan, hamar azenario landare oparitu zizkion bilobari eta aitak lagunduta, baratzean iltzatu zituzten hamarrak, egunen batean porrusalda prestatu eta amona bazkaltzera gonbidatzeko ilusioz.

-Nola daude gure azenarioak? -galdetzen zion maiz amonak Ekiñeri, eta honek, paparrean kabitu ezineko harrotasunaz, "abestia bezala, amona: handitzen, handitzen" erantzun ohi zion, guztiak lur azpitik noiz aterako zain eta amonarekin agindutako otordua egiteko irrikaz. Azenarioak handitzen eta handitzen joan ziren neurrian, ordea, desagertzen hasi ziren eta Ekiñe zeharo haserretu zen txorimaloarekin.

-Ez duzu zure lana ondo betetzen eta azenariorik gabe



geratuko gara! -aurpegiratu zion Ekiñek txorimaloari, baratzen bizpahiru falta zirela konturatuta.

Ekiñek ez zekien zer egin, halako ilusioa jarria zuen aspaldidanik porru eta azenario jate hartan...amonari zina egina zion eta azenarioak desagertzen baziren, amonak ere pena hartuko zuen eta... etsituta, bere gelan sartu zen. Ohean etzan eta burko azpian gorde zuen burua ostrukek bezala. Ez zuen Lorek negarrez ikusterik nahi. Akabo baratza eta akabo dena.

Txorimaloa baratzetik atera eta armairuan sartuko zuen zigortuta. Merezia zuen azenarioak irensten ari zen dena delakoa uxatzeko gai izan ez zelako. Amona Juanitaren lastozko txapela kendu eta kitto, txorimalo alferrontzirik gehiago ez baserrian. Loreri ere denbora zen kasurik egiten ez ziola Ekiñek, hain lanpetuta ibilia zen bere txorimalo, marrubi, xixare, barrabas belar eta gainerakoekin...

-Lorek ez du kalabaza piparik jan aspaldian, Eki. Agian gaixo dago...-amak sukaldetik ozen.



Kolpetik atera zuen burua
Ekiñek burko azpitik amaren
esaldia entzunda. Baratzaren

kontuarekin, zeharo ahaztu zitzaion denbora zela loroak piparik ez zuela jan. Astiro-astiro hurbildu zitzaion animalari eta koloretako lumak goxotasunez igurtzi zizkion. Ekiñek hatza luzatu zion eta Lorek neskatxaren atzean pausatzeko atzaparra zabaldu zuen. Mokoan laranja koloreko arrastoak nabarmen.

-Lasai, Lore. Nik erosiko pipak, baina azenarioak porrusaldarako dira, entzun? -esan zion Ekiñek maitasunez.

Maitasunez eta... azenariotasunez.



MAKUSI

Maialen Akizu

18 1630eko maiatzaren 4an sortu zen Igartu. Ez zuen munduratzean negarrik egin, baserriek ez baitute arnasa hartzeko negarrik egiten. Amalurrek goxo hartu zuen bere besotan, Ezkioko belardi batean eman zion lekua, bere harrizko azal leuna, oraindik bigun eta heze. Baserri haren ederra ikusi zutenek irribarre egiten zuten, zeinen dotorea zen gorazarre egin, baina Igartuk ez zuen bere bururik sekula ikusi, ez bererik ez besteenik. Beste denok bezala, Igartu ere, begiekin jaio zen. Baserrien begiak, gizakiok leiho deitzen ditugun horiek dira. Hasieran, normala izaten omen da leihoak argitasun berri horren aurrean zer egin ezin jakinda, itsumustuan aritzea, baina, pixkanaka, munduari begiratzeko ikasten da. Gu bezalaxe. Igarturen ikusi ezina, lehen hilabeteetako kontua zela uste zuten, baina ezpa. Itsu sortu zen, gaur arte.

Ikusmenaren faltan, gainerako zentzumenak izugarri garatu zituen. Neguan, elur malutek kili-kiliak sortzen zizkioten gorputzean; haizea, bertaratu baino lehen entzun zezakeen; lapikoko saldak, ziza

atera berriak, era guztietako hodeiak, zein inguruko puzkerrak usaintzera heldu zen. Pentsa zein estu ibiltzen zen babarrun egunetan! Bizitza eta heriotza ere sumatzen zituen Igartuk.

-Gure Marzelinok, ez du hilabete hau pasatuko. -Hala kontatu zion ostegun batez Kata katamotzari, eta halaxe izan zen. Igarturen baitan bizi zen Mendiguren familiako Martzelino, hilabete eskasean hil zen. Ez galdetu nola. Igartuk asko zekien, baina den-dena ezin.

Ezkioko paraje hartan bazen baserri andana, baina Igarturi ez zioten kasurik egiten gainerakoek. Euren etxe-barruko txutxu-mutxuak parrastan kontatzen pasatzen zuten eguna; urlia ezkontzera doala, etxetik joatekotan dela sandia, edo berendia, triste dabilela aspaldian. Igartu baserri "gaixoa" zela uste zuten, ikusmenik ez zuen baserria ezin zela baserri "oso" izan, eta ziria sartuz ibiltzen zitzaizkion.

-Igartu, begitik al haiz ihartu? -botatzen zion bihurri Salete baserriak.

-Salete, ito aurretik, ez ezan ahoa hainbeste bete! -Igartu ez zen isilik gelditzen.

Beno, Igarturi, gertuko lagunek Igar deitzen diote, eta zuk ere honezkeru lagun





Egilea:
Elisabeth Perez

eginda izango duzu, ezta? Hemendik aurrera, beraz, dei diezaiogun Igar.

Igar gazte galaia zen artean. Pum, pum, pum. Zerua lur, eta lurra zeru bihurtuko zela zirudien. Zer zen hura baina? Trumoi hotsa ez zela bazekien Igarrek, hura sumatzeko gai izaten zen. Egundo halakorik entzun gabea zen. Arraro arranoa aditu zuen hegaka bere buru gainean, eta hari galdetu zion.

-Arraro, harritua nagon zeharo. Ehiztari festaren bat al dago?
-tiroa hotsa nabaria zen: pum, pum, pum.

-Ez Igar, gerra hasi dun han, eta hona zetorren bihar. -Gerra. Hitza entzun bezala, Igarren azala, baserriaren pareta, uzkurto egin zen. Eta hala izan zen. Gerra Karlista iritsi zen Ezkiora. Mertzikondoen usainari gain hartu zion izerdi eta polboraranenak, beldurra ukigarria zen, eta besterik ez zen entzuten: "Gora foruak!", "foruak Euskal Herriarentzat!". Igarrek ez zekien zer ziren foruak, eta orduko izurik errepika ez zedin, ez zion inori galdetu. Nik ere ez dakit azaltzen, eta zuk ba al dakizkizu zer diren foruak? Akaso, zure ingurukoren batek jakingo du, galdetuko al diozu?

Foruak foru, pasatu zen ordukoa, eta etorri ziren ondoren beste gerra batzuk. Igarrek berak, ez zuen ezbehar handirik izan gerretan, baina bere inguruak astindu latza jasan zuen: mendigurrendarrak triste, artasoroak erreta, animaliak ezkutuan. Alabaina, minak momentuaren

kontzientzia handitzen lagundu zion Igarri, eta gaztaroari agur esaten ere bai. Azal-paretak zartatuago zituen, burua soildu zitzaion teilaren bat erori ahala, eta gorputzeko zirrikitu guztietatik entzun eta usaindu arren, gaitasuna apaldu zitzaion denborarekin. Hala ere, Igarrek baze-kien, bere zentzumenen eskatea ez zela orkatzak horren gutxi ibiltzearen arrazoia. Sagarrondoek ez zuten garai bateko betetasunik, inguruko baserriek txutxu-mutxuan aritzeari utzi zioten, eta haizeak, erre loarena ez zen usain bat zekarren. Zer ari zen pasatzen?

-Axe, -gau batez gerturatu
zitzaion azeri lagunari zuzendu zitzaion Igar -zergatik hainbeste
aldaketa klase?

-Igar, industria eta fabrikak;
gizakiak aldatu dizkin gure inguru
politak. Dena zagon itsusi, nik ere, zu
bezala, nahiago ez ikusi.

Itsusi, nahiago ez ikusi. Igarrek
behin baino gehiagotan esan izan
zien lagunei, ez ikusi arren sentitzeko
gaitasuna bazuela, eta "itsusi" ezeri ez
deitu arren, bazirela gehiago edo
gutxiago gustatzen zitzaizkionak.

Industria eta fabrikek inguruari eta bere gorputzari ekarri zioten al-
daketa ez zitzaion gustatu hasiera batean: sortutako kea denbora
gutxian, zeru bihurtuko zela uste zuen; zaratak, txoriak mututuko
zituela, eta lurrari, halako ebaki eta izauzkiak egin zizkion petrikiloa,
txintxilinka jartzeko gogoak sutzen zuen Igar. Gainera, auskalo nondik,
zertarako ez zekitela, pinua etorri zen. Pago, gereziondo eta haritzek,
mesfidati hartu zuten atzerritarra.
Igarrek hasieran ere bai, harik eta, berarengandik gertu ernatu
zen Pin pinua ezagutu arte.

-Pin, gaur ere lehor eta zikin! -botatzen zion Igarrek
lagunari, bere adarrez, adarra joz.

Pin oraindik euskaraz ez zen erabat moldatzen.
Belarriprest-a zen, bere hosto bakoitzarekin
entzuten zituen Igarren kontuak. Ahal
zuenean erantzun, eta bestela, barre
egiten zuen. Entzun al duzu sekula pinurik
barrezka? Hala ez bada, belarria jarri
behar duzu bere enborraren kontra,
baina begiratu, ea hostoak gorritu
zaizkion. Hosto gorriek, pinua
gaixotu egin dela esan nahi dute.
Horrelakorik ikusiz gero,



muxu bat eman behar zaie enborrean, berriro ere barre egin dezaten.

Pinuak lagun eginda, industria eta fabriken aldaketen hasierako ezinegona baretu zen ezkiotarrengan. Aspaldian gainera, geroz eta jende gehiago zetorren paraje hartara, Igarren bueltara batez ere.

-Ai ama, zergatik dator hainbeste jende niregana? -Igarrek ez zuen ondo ulertzen, baina gazte garaian ez bezala, erantzun denak bilatzea alferrikakoa zela ikasita zegoen gure baserria. Galderak egiten zituen, arnasa hartu eta momentua sentitu. Gustatzen zitzaion zekarten bizi-poza, gustatu, korrika sentitzea baratzean edo eskailetan gora, gustatu, egiten zizkioten ukituak eta laztanak. Maitatua sentitzen zen Igar.

Azken urteetan Igarrek izan ditu beldur-egun batzuk. Gerra gogorarazten zioten hotsak entzuten zituen nonahi, pum, bum, brrrggg. Inoizko tren azkarrena lur haietatik barna pasatuko zela kontatu zion Axek. Igarrek ordea, jakin zuen beldurra indar bihurtzen, eta onartzen, dena ez dagoela gure esku, dena ez dela gure gustagarri, denak duela bere bukaera: landareak zimeldu egiten dira, eta beste batzuk sortu ondoren; baserriak erori, hustu eta birrindu egiten dira, baina berriak ere eraiki zein txukuntzen dituzte; Amalurraren gorputza, paisaia, aldatu egiten da urtaroka, urteka eta ur-tantaka. Igarren gorputza zein gurea egiten den bezala.

Igarrek ikusi ez, makusi egiten du. Usaindu, entzun, sentitu, bizi. Ikusi ezina baino, ezinikusia askoz ere gaitz txarragoa baita. Igar bisitatzeraz joaten bazara, ez ezazu besoa altxatuz agurtu, ez zaitu ikusiko-eta. Emaiozu muxu goxo bat bere azalean, konta iezaiozu istorio politen bat edo bota puzker txiki bat, disimuluan.

MARRUBIEN

zaporea

Josune Garcia de Bikuña

26

Goizeko zortzi eta erdiak. Ohetik altxatu naiz arrapaladan, begietako makarrak kendu eta aurreko egunean prest utzitako prakak eta tirantedun kamiseta jantzi ditut. Berandu nabil! Motxilan ur botila, sagarra eta aitak prestatutako gazta tortilla ogitartekoa sartu ditut.

- Agur!- oihukatu dut atea zeharkatzen dudan bitartean. Eskolako aparkalekura iritsi naizenerako, autobusean eserita daude ikaskide guztiak. Ines irakaslea daukat zain, bere sudur zorrotz eta begi distiratsuekin. Igo naizenean, lagunen algarak entzun behar izan ditut:


- Beti berandu!
- Bazen garaia!

Unairen ondoan topatu dut lekua, lehenengo ilaran.

Mutil jatorra da baina lotsati samarra. Ez du jolas-orduan gurekin futboleant aritu nahi eta bakarrik egoten da, loreak biltzen izkin batean dagoen lorategian. Atzean, Loubna eta Nerea daude, kromoak elkarbanatzen.

Bihurgunez beteriko mendatea igo dugu, Mikel zorabiatzen hasi da eta Galder irakaslea botaka egiteko poltsarekin hurbildu zaio, korridorean barrena orekari eusten dion bitartean. Ehun urteko zuhaitzen basora iritsi garenerako, batek baino gehiagok dugu tripa nahasia, baina oinak lurrean jarri bezain pronto, jolasean hasi gara txoriak uxatzeko gizaki beldurgarriak diruditen zuhaitz erraldoien artean.

Inesek eta Galderrek inguruko loreak eta landareak ezagutzeko jolasa prestatu dute. Lauko taldeetan elkartzeko esan digute eta Nerea eta Loubnarengana jo dut. Unai gurekin elkartzera gonbidatu dugu eta musua gorrituta hurbildu denean, saltoka hasi gara elkarri besarkatuz. Irudiz beteriko fitxa eman digute irakasleek orduan, eta inguruan, horiek bilatzeko eskatu digute. Basoa inguratzen duen zelaian hasi gara bila. Lehenengo hirurak arazorik gabe aurkitu ditugu: kuku-praka, mitxoleta eta



27

bitxilorea. Laugarrena, ordea, ez da inon ageri. Ezkila-lorea du izena, nahiko txikia da eta more kolorekoa. Zelaiak duen aldapan gora egin dugu.

Loubna izan da gora iristen lehenengoa. "BEGIRAAAAAA!" oihukatu digu eta lasterka hurbildu gara ikusten ari den hori zer den jakin nahian. "BASERRI ZAHAR BAT!!" esan digu irribarrea aurpegian duela.

-Agian sorgin bat bizi da barruan- esan du Nereak.

-Sorgin bat?- esan du Unai dardarka.

-Ez txorakeriarik esan, mesedez! Etxe horretan ez da inor bizi. Leihoak apurtuta daude eta teilatua erortzeko zorian! -erantzun diot.

Kanpoaldean urratutako izara bat dago eskegita,atean eguzki-lorea, zintzilik, eta ondoan, aitzur erdoildua. Etxea inguratu dugu. Atzeko aldean, inoiz baratza egon zela ematen du, baina barazkiak zaintzen zituen txorimaloak galdua du burua eta arropak zuloz beterik ditu. Halako batean, Nereak ezkutaketan jolastea proposatu du eta ezin ezetz esan proposamen dibertigarri horri!

-Nik zenbatuko dut! -esan dut.

Arraroa bada ere, izugarri gustatzen zait besteak harrapatzea.

-Bat,bi,hiru,lau,bost,sei,zazpi,zortzi,bederatzi, hama. BANOAA!

Inguruan arakatu dut, baina atea zabalik dagoela ikusi dudanean, barruratu naiz. Hezetasun usaina dago, eta armiarma sareek apaintzen dituzte horma zaharrak.

-Nooon zaudeteeeeeee? Aurkituko zaituuuuuzteeet.

Bat-batean oihu bat entzun dut goiko solairuan. Egurrezko eskailerak igo ditut eta hantxe topatu ditut Unai eta Nerea, aurpegia zurbil, lurrean dagoen koadro bati begira. Baserriaren margo bat da, lorez beteriko balkoia du eta atearen ondoan familia bat ikusten da, banku batean eserita.

-Ko ko koadroak Loubna jan du! -esan dit Unai.

-Nola? Txantxetan zabilta ezta? -erantzun diot ulertu ezinik.

-Egia da, Loubnak koadroa horrela hartu du eta...

Esaldia amaitu gabe dagoela irentsi du Nerea koadroak.

-Ezin gara basora itzuli haiek koadro ziztrin honen barruan utzirik! -esan dut arduratuta.

Makurtu eta koadroa hartzera joan naiz baina Unaik, orduan, geldi egoteko oihukatu dit. Harrituta begiratu diot, ez baitut sekula horrela ikusi. Besotik oratu dit eta koadroa ez hartzeko eskatu dit.

-Hartzen baduzu, bakarrik geratuko naiz hemen eta beldur naiz! -esan dit malkoak begietatik darizkiola.

-Heldu eskutik -esan diot -Elkarrekin egingo dugu, ados?

Lasaitu egin dela dirudi. Eskutik heldu, beste eskuekin koadroa hartu dugu eta...TZAST! Zurrunbiloan biraka hasi gara noraezean. Konturatu orduko, baserri bereko sukaldeko lurrera erori gara, BLAST! Gelak, aldiz, ez du itxura bera. Hormak zuriz margoturik daude, ez dago amaraunen arrastorik eta sua piztuta dago. Gure lagunak entzun ditugu kanpoan norbaitekin hizketan. Leihotik begiratu dugu, eta han ikusi ditugu baratzean, buruan zapi loredua duen emakume batekin. Hurbildu garenean, poz-pezik agurtu gaituzte:

-Ez larritu! -esan du Loubnak -Pertxenta, hauek Laia eta Unai dira, gure lagunak.

-Ongi etorri nire etxera gazteok -esan du emakumeak -Gustuko al dituzue marrubiak?

Baietz erantzun diogu buruarekin eta hosto



handiko landare bati hurbildu zaio, urrutitik antzematen diren fruitu gorriak eskuetan hartuz. Guregana hurbildu denean, belarraren kolorea duten begiak ikusi dizkiot. Irribarre bat oparitu digu marrubiekin batera. Buelta eman dudanean, izara berbera ikusi dut zintzilik baina, oraingoan, garbi eta osorik. Ate ondoan aitzurra dago, garbi-garbi, eta alde batera, txarrantxa. Larrean, behi ugari dago, lasai bazkatzen. Ez dut ezer ulertzen!

-Nola iritsi gara hona? Lekua berdina da baina garbi eta polit dago orain -esan dut Pertxentari begira.

-Gaztea nintzenean, etxe honetan bizi nintzen familiarekin. Baserrian behiak jekten genituen, baratzean elikagai ugari hazten genituen eta inguruko azoketan saldu ere bai. Duela hogeit hamar urte, ordea, alde egin behar izan genuen. Bizitza oso zaila bilakatu zen. Ondoko herrian saltoki handi bat eraiki zuten eta jendeak azoketara joateari utzi zion. Baserriko produktuak saltokiko jabeek saltzen genizkien orduan, beste



LARUNBATAK

Miren Juaristi

Astelehena, asteartea, asteazkena, ostegun eta ostirala igarotzeko zain egoten zen Keltze larunbatean izebaren baserrira joateko. Zergatik? Ondoren kontatuko ditudan eta kontatu gabe geldituko diren hainbat gauzengatik.

Larunbat goizetan, zabor bilketa egitera etortzen zen kamioiaren soinuarekin esnatzen zen Keltze. Etxekoak ametsetan utzi eta Pittu, etxeko txakur txiki luze hanka motza katetik hartuta abiatzen zen izebaren baserrira. Kaletik baserrira hamabost minututan heltzen ziren eta bidean, harrizko zubia, pinudi beltza, haritz lehorra, urik gabeko iturria eta Txindoki txikia deitzen zioten aldapa igaro behar izaten zituzten. Pittuk, zazpi alditan pisa eta hiruzpalau alditan kaka egiten zuen. Keltzek zintzo-zintzo jasotzen zituen bidean uzten zituen kakamokordoak baina baserrira artekoak soilik.

Txindoki txikia igaro ondoren izebaren baserri zuria agertzen zen eta hura ikusi



bezain pronto, zakurrari katea kendu eta hor konpon Pitturen kaka pilak! Izebak nahi zuen lekuan libratzen uzten zion Pitturi, izebak berak ere ez zituelako oilo eta behien gorotzak jasotzen. Baserrian gorotz bakoitzak bazuen bere tokia: behiena zelaian, oiloena oilategian, txorien adar azpitan, barraskiloarena hosto gainean eta Pitturena mendioko ate ondoan. Baserrian guztia egoten zen egon behar zuen lekuan.

Izeba Amaiaren baserriak *Kokoteraino* zuen izena eta halaxe zeukaten Amaia kaleko zenbait pertsonak. Izan ere, Tote eta Manuel jubilatutako egunero igarotzen ziren paseatzen eta izebaren baratze ondotik igarotzean, arto landareetan gora Arkimedesen kiribila bezala besarkada estuan zihoazen babarrunen lekak biltzen zituzten poltsikoak betez. Ez zituzten inoiz herriko berdura plazan ikusi baserritarren postuetan erosten, baina edozein baserritako baratzea supermerkatutzat zeukaten aurpegi luze haiek. Hilero berriz, turista malabarista galduren bat azaltzen zitzaion atarira baserria landetxea ote zen galdezka. Dirudienez, mugikorreko bilatzaileek ez dute oraindino urrutiko landa-lur miresgarrien koordinatu zehatzik. Eta hau



guztia gutxi balitz, urtean behin, nazioartean zabaldua dagoen enpresaren bateko burua hurbiltzen zitzaion kontratua eskuan, baserrira eta lurrak erosteko eskaintza mundial batekin! Proiektuak urtero aldatzen ziren: errepidea, fabrika, bainuetxea... izebak honela esan ohi zion Keltzeri, "Kokoteroraino naukate denek!" eta biek barre egiten zuten, ozen, algaraka, larrean zeuden lau behiak jateari utzi eta begira gelditzeko moduan.

Itzuli gaitezen ordea dagokigunera, larunbatetara. Keltzeren larunbat haietara.

Pittu izaten zen *Kokoteraino* heltzen zen lehena eta larunbatero bezala, bereak sentitzen zituen lurrak markatzen zituen aurrena. Izeba Amaia, normalean, atariko loreak ureztatzen egoten zen ordu horietan.

Halaxe zegoen, egon ere, ilea motots batean jasota eta ohiko praka bakeroak, koadrozko alkandora eta bi poltsikodun amantala soinean. Keltzerentzat hura zen izebaren superheroi jantzia, bere izeba superkaxeraren jantzia! Horrez gain, aipatu beharra dago izeba Amaia meteorologo ere bazela eta euria noiz egingo zuen jakiteko hainbat ebidentzia zientifiko

erabiltzen zituen. Horietako batzuk gogora ekarriko ditut segidan: ar-miarma bat agertzen bazen sukaldeko sabaian, gabean euria egingo zuen. Enarak behetik hegan egiten bazuten, hurrengo egunean euria ziur. Eta katua buztanarekin jolasten hasten bazen, euria zetorren hurrengo egunetan. Horiek ziren izebaren sasi-zientzialari ebidentziak, baina, harigarriena, gehienetan asmatu egiten zuela!

Baserrira heldu bezain bizkor, larunbatetako erritua hasten zen. Aurrena, izebak oilategira bidaltzen zuen Keltze dozena bat arrautza biltzera. Beranduago, izebak traktorea ateratzen zuen mandiotik. Keltze atzeko partean zutik jartzen zen eta biak sorora abiatzen ziren zer edo zer landatzera. Kontatzen ari natzazun larunbatari dagokionez, porru landareak izan ziren hautatuak. Superkaxera Amaiaren ibilgailua, hau da, traktore berdea, ez zen azken belaunaldikoa eta zaharkitutako ordenagailuen gisara izugarrizko iskanbila ateratzen zuen martxan zen bitartean. TU-TU-TU-TU-TU-TU... hots ozenak lagunduta heltzen ziren izeba eta Keltze munduko gaizkileak atzematera abiatzen diren superheroia eta haren laguntzaile abenturazaleak bezala. Eta fikziozko superheroi eta laguntzailea bezalaxe, lanean hasteko unea heltzen zenean, lanerako tresnak ateratzen





Erilea:
Elisabeth Perez

zituzten: porru landareak eta aitzurra. Izeba hasten zen lehenik lurrean aitzurrarekin arrastoa egiten eta atzetik jarraitzen zion Keltzek porru landareak erretenean banan-banan jarritz. Honela aritu zen super-bikotea, bi dantzari garaikidek sorturiko koreografia balitz bezala, dozena landarek osatutako sei ilara egin arte.

Baratzako ekinaldia eta gero, edari isotonikoa merezia izaten zuten indarrak berreskuratzeko eta izebak limoi-ur freskoa prestatzen zion Keltzeri. Superheroien edaria. Baina indarrak berrituta, lanari ekin behar zitzaion baserrian beti zegoelako zerbait egiteko, eta izeba, superkaxera izanik, ez zen geldirik egoten. Hala ere, Keltzeri, bere laguntzaileari, atsedean hartzen uzten zion. Amaia batean eta bestean langa bat konpontzen, egurra moztzen, sastrakak erretzen edo intxaurrak biltzen zebilen bitartean, Keltzek baserria eta inguruak mehatzeko denbora izaten zuen. Atariko koska batean esertzen zen eta adi-adi begiratzen zuen inguratzen zitzaion bizitza. Eguzkiarekin batera sugandilak ateratzen ziren petrileko zulotik eta euren oin handiekin bongoa joko balute bezala aritzen ziren. Inurri bizkorrek Keltzek botatako ogi zatiak hartu eta ziztu bizian alde egiten zuten hegazkina hartzeko berandu dabilena bezala. Armiamek euren etxea patxadaz josten zuten gutxienez metroko luzera zuten sareak sortuz. Eta kurloiek berriz teilatupean sekulako iskanbila ateratzen zuten euren gela batego habietatik. Keltze zoologo onenaren parekoa sentitzen zen une horietan, Dian Fossey amerikar zoologoa bezain bestekoa.

Larunbatetako ohikeria jarraituz, zoologia pixka bat egin ondoren zoorakeriak egiteko ordua izaten zen. Izebak larunbat eguerdi arteko lanak amaitzen zituenean Keltzeri gehien eta Pitturi gutxien gustatzen zitzaien ekintzan parte hartzeko denbora izaten zuen, beti. Eguraldi onarekin, eta larunbat hartan eguzkiak bikain berotzen zuen, baratzea ureztatzeko hodi lodia hartu eta parean topatzen zuen guztia bustitzen zuen izebak; tartean eta gehienbat, koloretako kulerotan blai egiteko prest jartzen zen Keltze! Haiek bai presiopeko txorro erlaxagarri, analgesiko eta bizkorgarriak. Goitik behera, mela-mela eginda bukatzen zuen Keltzek eta maite zuen hura sentsazioa. Maite zuen ere ondoren, itsasoan lapak harkaitzetan bezala, eguzkiak epeldutako atariko harrizko zoruan bere gorputza itsastea koloretako kulerook sikatu arte. Aldiz, Keltze sikatzen zen bitartean, Pittu poliki-poliki hurbiltzen zen lur bustiaren gainean sabel azpia freskatzeko. Tarte horretan guztian, izeba Amaia superkaxerak baratzetik letxuga eta tomateak jaso eta entsalada prestatzen zuen. Keltzek bildutako arrautzekin patata tortilla eta bizkotxoa egiten zituen. Bazkal aurretik baserri inguruko belar zatiren bat segaz mozten zuen eta abar, eta abar.

Horrelaxe igaro zuen Keltzek larunbat fantastikoa izebaren baserrian. Ostera, larunbat guztiak amaitzen dira eta egun hartakoa ere bukatu egin zen. Horiek horrela, igandetik ostiralerako errutina hasten zen Keltzerentzat: eskolako ordutegia; etxeko lau pareten barruan egoitea; asteko agenda... eta guztiaz kokoteroraino bukatzen zuen!

DESAGERTUTA

Joxe Aldasoro

Itoitz kuxkurturik dago. Aitzur, aritto, ureztaontzi, tutu malgu, katiuska, buzo, orga, soka, pala, pertz, ontzi eta palatxoek osatzen duten anabasan ezkutatuta. Orduak daramatza etxolan aitarengandik ihes. Beldurra ematen dio zigorrak baino, egingo dion errietak. Egin duena benetan larria da.

-Ez zara entsegura joango eta emanaldiarena ikusiko dugu!

-Zergatik ez aitta!?

-Belarrak egiteko sasoi bete-betean gaudelako!

-Ba joan egingo naiz!

-Atrebi!

Herenegun afaltzean aitarekin izan zuen sesioa.

“Pikutara belarra eta pikutara baseria! Ni izorratzea beste helbururik ez dauka aitak. Ikasturte osoa antzerkira joaten eta orain zer nahi du, azken emanaldia zapuztea? Lana besterik ez du buruan! Ardiei esnea jaistea, ilea moztea, mendira igotzea, non dabiltzan begiratzea, arkumeak, belarrak, agotzak, laharrak erre... Beti dago zerbait nik egin nahi dudana eragozteko. Lagunak futbola, musika, dantza eta zirkua egiten dute. Ni beti baserrian lotuta, txakurra katean bezala!”

-Haziendak ez du festa egunik!- esaten zion aitak oporretara noiz joango ziren galdetzen zionean. Igerilekuan lagunekin elkartzeko nahiko lan!

“Gorrotu dut! Haurra naizela uste du eta institutuan hasiko naiz sarri! Egin hau, hura eta bestea, horrela ez, begiratu nola egiten dudan nik, kasu eman, ikusi eta ikasi: eguneroko matraka! Zer uste du? Inutila naizela? Enterratuko da ba oraingoan!”

Hurrengo eguneko plana pentsatu zuenean lokartu zen Itoitz. Goiz altxatu eta auzoko baserrira joango zen. Bertakoek lagunduko zioten. Urte bete daramate Bordazulon maizter berriek. Hiru neska eta bi mutil. Juleni eskatuko dio herrira jaistea.

Aitarentzat alproja koadrila, alferrontziak, etxekalteak, hanka maku-
rrak besterik ez dira. Itoitzi ere hasieran beldurra ematen zioten: txima lu-
zeak, arrakalaz jositako belarri, sudur eta ezpainak, tatuaiak, arropa zarpaila...

Gauza bat zuten ona, noiznahi entzuten ziren gitarrak, trikitixa doi-
nuak eta festa algarak Bordazulon. Baita lanegunetan ere. Arraroak ziren,
bai, baina langileak. Okupak izan ala ez, kontua da erortzear zegoen etxea
konpontzen ari zirela. Teilatu berria bukatutakoan kaldor festara ere gonbi-
datu zituzten aita, aitona eta Itoitz.

-Ezta okurritu ere !-Aitaren erantzuna joan nahi zuela esan zionean.
Auzokoekin harreman oro debekatua zuen.

Noizbait patua alde izan behar eta halaxe gertatu zen ikastolara
zihoan goiz batean. Aitak oinez joanarazten zion, “hankak gogortzeko”.
Apirila edo izango zen. Euria barra-barra ari zuen eta uritakoa puskatzeko
moduko haizea.

-Aizu neska, hobe duzu igotzea! -Eta lehenengo
aldiz bizitzan ez zion kasurik egin aitaren aginduei:
furgonetan kopilotu jarri zen.

-Julen naiz, eta zu?

-Itoitz.



Bigarrena egun bereko arratsaldean izan zen. Bordazuloko baratzean agertu zen. Osoa erakutsi zion Julenek. Harrituta geratu zen: porruak zientoka, tipulak, urazak, tomateak, babarrunak, ilarrak, azenarioak, kuiak, ziazerbak, babak, lekak... Hainbeste barazki? Ezta asteroko azokan ere! Esplikatu zion baita ere nola osatzen zituzten saskiak eta nola jaisten ziren merkatuetara.

Bisitaldiak, beno, ihesaldiak ugaritu egin ziren. "Alferrontzien" etxean nahi zuena egiten uzten zioten, nahi zuenean. Ez zegoen errietarik, ez zegoen agindurik, beti irribarrez hartu eta agurtzen zuten. Zoriontsu zen Itoitz!


Aitarekin haserretu arte. Ez, Itoitz ez zen inutila. Eta aitari demostratuko zion. Atzo, inoiz baino goizago jaiki eta gosaldutakoan erlategira zihoala esanez agurtu zuen. Erleetara joan beharrean, aldamenekoengana joan zen:

-Herrira eramango nauzu?

-Ez al zaude oporretan, maitte? -Julenek "maitte" esaten zion beti.

-Antzerki entsegua dut, mesede galanta egingo zenidake...

-Ay! Gaurko gazteak obligazio asko eta jolas gutxi duzue! Goazen!



Itzulera ere Julenekin egin zuen. Arratsalde osoa eman zuten tipulak bakantzen. Etxera afaltzera itzuli baino lehen erlategitik pasatzea erabaki zuen. Egund osoa kanpoan eman eta gero aita sutan egongo zen.

Isiltasuna susmagarri egin zitzaion. Kilker hotsak soilik entzuten zituen. Arraroa zen, normalean Kanpozeleiko errekaetara pasatzen zuenean erleen burrunba entzuten zuelako. Aitonak kontatzen zionez, erleek soinu diferentea ateratzen zuten gaixo zeudenean, norbaitek erasotzen zienean edo erreginarik gabe gelditzen zirenean.

-Haien hitz egiteko modua da! Dantzari apartak ere badira, loreen inguruan dantza egiten esaten diete kideei non dagoen janaria ona!

Atzokoan zarata zirkinik ere ez! Bertaratu zenean eta lehenengo erlauntzaren tapa altxatu zuenean zur eta lur geratu zen: erlerik ez! Ezta bigarrenean, ezta hirugarrenean ezta hamaikagarrenean ere!

"Desagertu egin dira! Edo okerrago, hil! Ez diedalako janaria eta ura eman. Nire erruagatik! Aitak akabatu egingo nau! Ay ene!"

Beldurtuta korrikari eman zion eta Bordazuloko baratzeke etxolan



Egilea:
Ainara Azpiazu

sartu, tresna artean estali. Gau osoa eman du bertan. Ikaratuta, lotsatuta, damututa.

Egunsentia zen norbaitek txabolako atea ireki duenean. Julenek dal-dalka aurkitu du Itoitz, begiak hazita, malko arrastoekin. Parean zituen tresnak kendu eta besotan hartu du. Hitz egiteko nekatuegi, Itoitzek Julenen sorbaldan pausatu du burua. Etxera zeramala bidera agertu zaizkie aita eta aitona. Inoiz ez bezala besarkatu du aitak. Ez da errietarik egon. Esnea berotu eta oheraino lagundu dio. Afal ordura arte lo egin du Itoitzek.

Altxatu denean aitonak kontatu dizkio gorabehera guztiak: etxe inguruan hoska aritu zirela hasieran, erlategiaren inguruan bilatzen gero, Julen eta bere lagunengana jo zutela ondoren, herritarrak igo arte itxaron zutela basoa arakatzeko, suhiltzaileak etorri zirela...

Aita atzera eta aurrera dabil lapiko eta su artean, mahaia atontzen, ogia mozten. Ez dirudi haserre dagoenik, ondotik pasatzen den bakoitzean musu ematen baitio Itoitz. Aitonak egongelaraino lagundu duenean harritu egin da: ohi baino plater gehiago ikusi du mahaian.

-Julen eta bere lagunak gonbidatu ditu aitak. Erleen desagertzea asunto serioa da. Ingurua okerrera aldatzen ari denaren seinale, pozoizko asko edo lore gutxi dugu nonbait!

-Horregatik joan dira? Ez da nire errua izan?

-Gaitz erdi hala balitz! Erleak langile bezain azkarrak dira! Bizi diren tokiko airea, belarra, loreak, basoak kutsatzen direnean alde egiten dute.

-Nora baina?

-Auskalo! Ez baitira beste inon agertzen... Bueltatzea nahi badugu zer edo zer egin beharko dugu!

-Horregatik gonbidatu ditu aitak auzokoak?

-Beno, lehenik eta behin onik zaudela ospatzeko. Baina bai, aita konturatu da erleen arazoa gurea ere badela eta konpontzekotan, elkarrekin aritu behar dugula.

Erakuslea ezpainetan jarrita, aitonak antzerki emanaldiko zazpi sa-
rrera erakutsi dizkio.

MENDIZULOKO

sekretua

Mikel Aiertza

Zalaparta handia dabil baserri atarian. Nire logelako errezelen atzetik, zirikitu batetik begira nago, eta auto distiratsu batetik lau gizon gorbatadun, lau erraldoi atera dira. Batek aginte makila darama eskuan: alkate jauna (eskolan, nire gelako azkarrena naiz, guztiaz ohartzen naiz eta Interneten nabigatzen artista naiz). Baserriko aldaba jo dute:

Tok, Tok, Tok... eta nire aitona atera zaie, bere makuluarekin, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa... bekozko ilunez, haserre aurpegiarekin. Alkate txit gorenak paper bat eman dio eta zerbait esan dio tren baten inguruan. Aitona, pape-
ra hartu, eta baserri barrura itzuli da.

"Aginte makila hartuta, harroputz halakoa... makilakada ederra emango niokek nik bizkarrean handiusteko horri!"-marmarrean, biraoka hasi da aitona eta ukuilura joan da. Eta ni, ohitura dudan moduan, momento triste honi musika jartzen saiatu naiz:

Tra-Tra-Tra... traje eta gorbataz jantzita.

Tre-Tre-Tre... trenari buruzko hitz potoloak.

Tri-Tri-Tri... tripa handi halakoak.

Tro-Tro-Tro... tronpeta jotzen lau mozkor.

Tru-Tru-Tru... trumoiak joko du gaur.

Gaur ez naiz eskolara joan. Tripako mina daukat (atzo baratxuri zopa afaltzeagatik izango da). Honenbestez, gaur piper egin dut... "piper berde edo gorri, gaur ere etxean alferzorri" -kar, kar, kar, horixe esaten zidan amatxok-. Asko botatzen ditut faltan bere mimoak eta aitatxoren errietak. Hemen ez daudenetik bihotza zulatuta daukat, eskolako nire lagun Izarrek bezala, hark ere bihotza zulatuta dauka katua hil zitzaionetik. Eta ez omen dago bihotzeko zuloak josi ditzakeen jostunik, edo estali ditzakeen igeltserorik. Hala ere, aitona eta amonari esker zulo hau ez da hain sakona.

-Etor hadi hona Zuhaitz! -aitonak deiadar egin dit ukuilutik.

-Banoa, harturik kanoa -erantzun diot erdi bertsotan. Berak ematen dizkit bertsolaritzako klaseak: Bilintx eta Balantx eta Pitxita ipurdia itxita...

Amona ere berekin dago. Zerbait garrantzitsua esan behar didate...

-Etorri hona marrubitzo -esan dit amonak beti bezain maitekiro.

-Arantxa, a zer martxa! Zer marrubitzo eta zer bitxo! hasi zaio aitona bertso-laria-. Entzun iezadak Zuhaitz, entzun iezadak belarritik; Intxaurregi birrindu egin behar diate. Bota! Eraitsi! Suntsitu! Jata... Ditzosozko tren berriak hemendik pasa behar dik eta ez zeukeagu beste aukerarik. Bostehun urteko historia aitaren batean amaituko duk.


-Baina, nolatan aitona?

Orduan, aitona, bi bekainak dantzan dituela, bata Parisa eta bestea Londredera begira, pertsona helduen azalpenak ematen hasi zait; etorri den gizona alkatea zela, erakundeak eta udaletxeak hala erabaki dutela eta tren super berri eta super azkarrak mendi honetatik pasa behar duela... eta kaka zaharra...

Txu-Txu-Txu-Txu-Txu,

Triki Traka Triki Tra Basomendiko tren,

Triki Traka Triki Tra zer nolako pena.



Gero, amonak hartu du hitza; egoera berdinean geldituko direla Arterraka, Trikuzelai eta Haitzeta baserriak ere. Basomendiko bailara erabat suntsituko dela. Diru pila bat ordainduko omen digute gure baserria botatzearen truke. Eta nahi badugu etxe horratzez beteriko hiri batean ehun eta hogeigarren pisuan, zerutik hurbil, pisu dotore bat izango dugula (azken hau ez dit amonak esan, neuk asmatu dut, kar, kar, kar). Baina orratza beraiek sartu digute bihotzean...zast! Eta nik bihotza lehendik ere zulatuta daukat. Gainera, etxe orratzen hiriko etxe orratz handienetik ere ez dira Himalaiako mendiak ikusiko.

Aitona Intxaurregin, bertan jaioa da, eta amona beste herri batetik etorria, baina bera ere baseritik. Amonak esaten dit denok osatzen dugula natur. Gure izenek ere naturaren elementuak adierazten dituztela (adibidez, aitona Lorentxo, eguzkia da). Baserrien izenek ere bai. Animalienak ere bai. Hemen animalia asko daude: behiak, ardiak, astoa, zaldia, txerriak, untxiak, oiloak, eta abar. Eta baratzean, patata, letxugak, tomateak, piperrak, marrubiak...Ah, eta Animalia maitagarriena ahaztu zait; txakur bat ere badugu.

Mendi du izena. Honela abesten diot nik:

Mendi, Mendi, Mendi du izena,

ez da argal, ez da gizena.

Egiten du uau, uau!



ta hankak ditu lau,

gure txakurtxo hau

onena dugu, riau!

Gaur, ordea, triste oheratu naiz. Baserrian gertatzen den guztiaz ohartzen naiz. Horregatik naiz super azkarra. Supergaitua. Ama Natura ere haserretu da; trumoiak jo du eta itsasaldeko galerna mendiraino iritsi da. Egundoko haize ufadak dabilta kanpoan, krak-krak-krak soinua entzuten da leihoko zirrikitutik, intxaurrenduetako intxaurrek zelaira ostikoz botatzen ditu hai-zeak eta ukuiluko ateetan mamuak dabilzala dirudi.

54

Orain dela hiru bat urte, oso txikia nintzen, baina gogoratzen dut ardiak nola erotuta zebiltzan, eta amona makilarekin onetik aterata, haiek bildu nahian. Gogoratzen dut baserriko ateko eguzki-lorea nola bat-batean zimeldu zen eta babesgabe gelditu ginen. Egun hartan gertatu zen Pumoriko ezbeharrak. Urriak 17an. Pumori Himalaiako menditar bat da eta nepaldarren hizkuntzan "Mendiaren alaba" esan nahi du. Everest ahalguztidunak egiten dio ondotik itzal. Ba, egun hartan, nire aitaxo, amatxo eta beste hiru lagun Pumorik bere altzoan hartu zituen. Elur-jauzi batek harrapatu eta betirako han gelditu ziren. Aitonak hala esan zidan: "elur zuriak panorama beltza ekarri ziguk!". Omenaldi pila bat egin zizkieten bostei eta gure baserri aurrean pago bat ere landatu zuten. Bertsolari batek bertsoak abestu zituen. Bertso baten bukaera gogoan dut oraindik ere: gora begira jartzen gara gu, oheratzeko orduan:

bost izar diz-diz ikusten dira Himalaiako zeruan.

Horrela, ohean etzan naiz, eta zeruari so, gaur ere bost izar distiratsu ikusi ditut. Horietatik bi keinuka ari zaizkit. Gabon amatxo, gabon aitaxo. Asko maite zaituztet. Bihar arte!

-Esnatu Zuhaitz! Berandu joango zara eta eskolara...-ahots bat entzun dut...

-Nor da? Non dago?-amona daukat ondoan ni esnatu nahian...

-Ez amona, gaur ere tripako mina daukat. Ez noa eskolara.

Eskerrak amona konbentzitu dudak. Gezur txikia esan diot. Ez daukat tripako minik. Gaur egin behar garrantzitsu bat dut. Amets magiko bat izan dut; Suku izeneko Nepaleko neska bat. Begi urdin-urdinak, aurpegia orbanez beteta, hortza erdiak ustelduta, ilea zikin-zikina, arropa zahar-zaharrak, zulatuak eta adabakiz beteak... Hala ere, neska xarmangarria zen Suku. Bekokian perla gorridun Jainkosa. Kontatu didanez, nire aita eta ama ezagutu zituen, sherpa moduan laguntzen aritu baitzen Pumorirako igoeran. Amalurrak ez nauela inoiz bakarrik utziko esan dit. Nepaldarrak naturarekin ezkondu daudela. Natura magikoa dela. Mendizuloko kobazulora joan behar dudala magia hori aurkitzera. "Zein magia?" galdetu diot... eta ametsa bukatu egin da.

Segituan, pijametan oinetakoak jantzi eta Mendizuloko kobazulorantz abiatu naiz, aitonari eta amonari ezer esan gabe. Lanbroa egonagatik

55

ere, buruz dakit kobazulorako bidea. Errota zaharraren ondotik pasa ondoren, eskuineko pinudian sartu eta erromatar galtzadari jarraitu diot. Nire lehengusu Itsasok eta nik bakarrik dakigu kobazuloko bidearen berri. Inori ez geniola esango zin egin genuen trikuharriaren azpian.

Horrela, belardian erdi ezkutuan dagoen zulo misteriotsutik barrena Mendizuloko koban sartu naiz. Linterna biztu eta aurrerantz jarraitu dut. Aurrerantz eta aurrerantz. Hotza. Hezedura. Beldurra. Baina berdin dio. Nik beti Aurrera! Ustekabean, makila distiratsu bat aurkitu dut, lokatz artean. Gorosti-makila. Beraz, egia da Mendizuloko kondairarena! Behin amonak aipatu zidan bertan sekretu bat gordetzen dela. Makil hau, ziur, Basajaunena izango zen, eta sorginena, eta Makilakixkirena. Eskuetan hartu dut. Edo berak hartu nau. Boteretsu, indartsu, superheroia sentitu naiz. Orain neu naiz herriko alkate.

Etxera itzuli naiz. Nire aitatxoren ezkontzako trajea jantzi dut. Oso handia daukat. Barruan ezkututzen naiz.



Gorbatarekin lurra garbitu dezaket. Zapata hots doinuekin udaletxera joan naiz, etxean ezer esan gabe. Hau Suku eta nire arteko sekretua da. Pleno aretoan sartu, makila eskuetan, lepoa zut, alkateari neuk bota diot mitina:

"Hona hemen nire aginte makila. Mendizuloko sekretu isila. Naturaren legea, betetzea da xedea. Naturak trena maite du, baina tren suntsitzailerik ez! Eraiki dezagun trena, mendia hil gabe. Tren ekologikoa. Naturak eta gizakiok bagoi berean joan behar dugu...Beraz, super tren suntsitzaile hau ez da egingo. Aio Pelaio! Bidaa Hau, Namaskar!"

Berriro kobazulora itzuli eta gorosti-makila lehengo lekuan utzi dut. Salbu gara. Intxaurregi ez dute botako. Beste baserriak ere ez. Kanpora irten, belarretan etzan eta aharien txintzarri hotsen doinuan amets goxo batean murgildu naiz. Zeruan pausatu ditut bi begiak: bost izarrek dir-dir egiten dute. Bi distiratsuenak niri keinuka ari dira. Ondo lo egin aitatxo eta amatxo! Laster joango natzaizue bisitan Sukuri eskua emanda. Asko maite zaituztet! Bidaa Hau, Namaskar!

